

ZUMAIA / Bi ipuin kontaketa saioekin amaituko da gaur Liburuaren Astea

Haurrek irudimena lanean jarri zuten Liburu Erraldoiaren tailerrean.

ZUMAIA. DV. Gaur arratsaldean egingo diren bi ipuin kontaketa saioekin emango zaio amaiera Zumaiako Udal Liburutegiak antolatu duen Liburuaren Asteari. Gaurko saioak bai hurrei, baita helduei daude zuzenduta.

Arratsaldeko 5:30ean hasita, Alaitz Muro kontalariak eta Agurtzane Villate ilustratzaileak ipuin kontaketa berezia eskainiko dute Haur liburutegian. Batak ipuina kontatzen duen bitartean, besteak honi buruzko marrazkiak egingo ditu. Saio hau 3 eta 7 urte bitarteko haurrentzat dago bereziki pentsatuta. Iluntzeko 8etan berriz, helduentzat antolatutako saioa izango da Joxe Mari Carrere ipuin kontalariaren eskutik Foronda kultur etxean.

Antolatzaileak pozik

Liburuaren Astearen antolatzaileak pozik agertzen ziren lehen egunetan herritarrek emandako erantzunarekin. Bai astelehen eta asteartean izandako pelikula emanaldietan, bai asteazkenean egin zen Liburu Erraldoiaren tailerrean adin desberdinetako haur ugari izan ziren. Asko izan ziren herenegun arratsaldean Haur liburutegira hurreratu ziren haur eta gazte-txoak. Adin desberdinetan banatuta, arkatx eta margoak eskuetan, ipuinak eta marrazkiak egin zituzten. Gero, hezitzaileen laguntzarekin lan hauek guztiak liburu erraldoietan itsatsi ziren.